

Lady Godivaren kondaira biluzian

HERBERT ART GALLERY & MUSEUM



Lady Godiva,
John Collier
(c. 1897).

COVENTRY (INGALATERRA), XI. MENDEA. Leofric (968–1057) hiriko jaunak bertako biztanleak abailduta zeuzkan, zerga itogarriak medio. Lady Godiva emazteak behin eta berriro eskatu zion kargak arintzeko eta Leofriccek, azkenean, amore eman zuen: zergak arinduko zituen baldin eta emazteak zaldi gainean eta biluzik Coventryko kaleak ibiltzen bazituen. Herritar guztiak etxean geratzeko eta leihoak itxeko agindua eman ondoren, Godivak kondearen baldintza bete zuen, gorputz biluzia bere ile luzeak estalita. Hartara, Leofriccek zerga astunak ezeztatu zituen. Hala dio kondairak behintzat.

Lady Godiva benetan existitu zen, hari buruzko datu gutxi iritsi zaigun arren. Leofricekin ezkondu zenean, dagoeneko alargunduta zegoen, *Liber Eliensis* lanaren arabera. 1043an senar-emazteek Coventryko beneditar monasterioa fundatu zuten. Roger of Wendoverrek XII. mendean idatzi zuenez, kondesak konbentzitu omen zuen senarra monasterioa sortzeko funtsak emateko. Haien izenak beste hainbat erlijio etxeren ongile gisa agertzen dira dokumentuetan, Worcesterren, Lincolnshiren... Coventryko herriari ere emaitza oparoa egin zion Lady Godivak: Mannig urregin ezagunak landutako pieza sorta. Godivaren ekintzen azken berriak 1066. urtekoak dira, eta badakigu 1088an dagoeneko hilda zegoela.

Datuok kondesa eskuzabala omen zela adierazi arren, ez dirudi biluztea-

ren kondaira egia denik. Elezaharra XIII. mendean idatzi zuten lehenengoz, ustezko gertakizuna baino 200 urte geroago. Hainbat historialarik ugalkortasun erritu paganoen kutsua hartzen diote kontakizunari: erregina-gaiak kaleak biluzik ibili behar omen zituen udaberriaren etorrera ospatzeko. Beste azalpen bat garai hartako prozesioak dira. Damudunak azpiko jantzi modukoan egin ohi zuten bidea. Hala, Godivak penitentzia azpiko jantzian egingo zukeen, baina, denboraren poderioz, jantzi guztiak erantzi eta elementu erakargarriagoak erantsiko zizkieten. Gainera, lege anglosaxoien arabera –normandiarren konkista baino lehenagoko garaiaz ari gara–, Lady Godivak ere zergak ezartzeko eskumena zuen. Beraz, zaldi ibilaldiak ez luke zentzurik.

Historiako *voyeurismo* unerik ezagunenetakoa ere ez du egiazko oinarriarik. Kondairak dio Tom jostunak zulo bat egin zuela kontraleihoan zalduna ikus ahal izateko, eta Lady Godiva begiztatzeko unean itsu geratu zela. Bada, kondairaren iturri zaharrenetan ez da Tom Begiluzearren arrastorik ageri. Gainera, Tom (Thomas) ez da izen anglosaxoia, eta 69 familiaz osatutako Coventry txiki hartan gertagaitza da Tom izeneko biztanlerik egotea. Edo herriko emakumerik boteretsuenak bere oniritzi ezarritako zergaren aurka biluzik protesta egitea. ■



Arrastoak

Matusalenen benetako adina

BIBLIAREN arabera, Matusalen Itun Zaharreko pertsonaiarik adintsuena izan zen, 969 urte zituela hil omen baitzen. Baina adin hori ez zen ezohikoa garai haietan, Adam 930 urtera iritsi baitzen, eta Noe 950era. Luze- ra horren azalpen teologikoak dio Jainkoak bizitza luzea eman ziela gizakiei, baina Uholde Handiaren ondoren gizakiak aurreko bekatuengatik zigortzea erabaki zuela, bizitza zikloa nabarmen laburtuz.

Azalpen lurtarra soilagoa da: Bibliaren itzultzaileak erratu egin omen ziren eta ilargi zikloak eguzki ziklotzat hartu zituzten. Itun Zaharreko pertsonaien adinak, beraz, 13,5ez zatitu beharko lirakeke. Horrenbestez, Matusalenek 72 urte izango zituen hil zenean. Ez da gutxi Antzinarorako. ■



Matusalenen irudia Canterburyko katedraleko beirate batean.